

ALAI BATZAKO KONTINGENTZIA PLANA

2020-2021 IKASTURTEA

0. SARRERA

COVID 19 dela eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun Sailen aginduak eta gomendioak kontuan hartuz, Alai Batza Aisialdi Elkartean 2020-2021 ikasturteari begira ondorengo neurri hauek hartu dira.

1. NEURRI OROKORRAK

- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten haurrak eta begiraleak ez dira Alai Batza joango.

Sintomak honako hauek dira:

- Temperatura 37º baino altuago.
 - Eztula.
 - Buruko mina.
 - Ondoeza.
 - Hotzikarak.
 - Gonbitoak.
 - Beherakoa.
 - Gustu eta usaimen falta.
 - Arnasa hartzeko zailtasunak.
- Alai Batzan parte hartuko duten haur, gazte eta begirale guztiek maskara erabili beharko dute uneoro.
 - Garbiketa eta desinfekzio neurriak areagotuko dira eskola-esparru osoan (espazioak, tresnak eta materialak).
 - Gela bakoitzean eta beharrezkoak diren kasuetan alfonbra bat egongo da, desinfektatzailea botako da eta bertara sartu behar duten guztiek aurretik zapatak bertan astinduko dituzte.

- Eskuak sarri garbitu behar dira eta, bereziki:
 - Alai Batza sartu aurretik edota beste gelatara sartu aurretik.
 - Eztul egin ondoren.
 - Doministiku egin ondoren.
 - Zintz egin ondoren eta sudurra edo ahoa ukitu ondoren.
 - Atarira ateratzerakoan eta ataritik sartzerakoan.
 - Komunera joan ondoren.
 - Zikinak daudenean.
- Norbaitek bere gel hidroalkoholkoa ekarri nahiko balu, aukera izango du.
- Arnasa-higienea



- Ezingo dute Alai Batzara etorri COVID-19agatik diagnostikatuta dauden pertsonak, haurrak zein begirale, edota positibo baten kontaktua izateagatik etxean berrogeialdia osatzen ari diren pertsonak.

- **ALAI BATZAN DAGOLA COVID-19AREN SINTOMAK AGERTUZ GERO...**

Haur, gazte edo begirale bati Alai Batzako ekintzetan parte hartzen ari dela COVID-19aren sintomaren batek agertuz gero hurrengo pausuak jarraituko dira:

- Haur edo gazteren batek gaixotasunaren sintomaren bat izango balu familiari deituko zaio haurraren kargu egin daitezen.
- Sintomak dituen haurra edo gaztea begirale batekin egongo da, beste haurrengandik urrunduta (COVID gelan).
- Familiak osasun zentroarekin kontaktuan jarri beharko du eta bertan aztertuko dute haurraren edo gaztearen egoera. Balorazioa izan arte, haurrak edo gazteak ez du Alai Batzako ekintzetan parte hartuko.
- Begiralaren batek sintomaren bat izango balu, Alai Batza utzi beharko du eta bere ardura izango da osasun zentroarekin kontaktuan jartzea. Balorazioa izan arte ez da Alai Batzara joango.
- Positiboa bada medikuak esandakoa bete beharko du.
- Guk egunero etortzen direnen asistentzia kontrolatuko dugu, norbaitek positibo ematen badu, berarekin nor egon diren jakiteko.

2. OSTIRALAK

2.1. PREBENTZIO NEURRIAK

2.1.1 FAMILIAK

- Familiak konpromiso batzuk hartu beharko dituzte eta dokumentu bat sinatu beharko dute.
- Haur eta gazteak etxetik egunero tenperatura hartuta etorriko dira.
- Ahal dela familiak ez dira ikastetxera sartuko, zer edo zer behar badute Alai Batzako telefonora deituko dute.

2.1.2 HAUR ETA GAZTEAK

- Haur bakoitzak bi maskarilla ekarriko ditu: bat jantzita eta ordezeko bat badaezpada.
- Etxetik ezingo da jostailurik ekarri.
- Ezingo da jatekorik ekarri.
- Ura edatekotan bakoitzak bere ur botila edo kantinplora ekarriko du.
- Haur eta gazteak gelan dituzten materialak (boligrafoak, margoak...)erabiliko dituzte. Bakoitzak bereak izango ditu eta ezingo dira partekatu.
- Haur eta gazteak bakoitza bere mahaian eta aulkian jarriko dira.
- Taldeak ikastetxeko gela berdineko haur eta gazteekin osatuta egongo dira.
- Gehienez ere 15 izango dira talde batean, begirale barne. Gainera, beti talde berdinenaren parte izango dira.

2.1.3. BEGIRALEAK

- Maskarak uneoro jantzita egongo dira.
- Eskuak maiz garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin.
- Edozein paper edo material banatu aurretik eskuak garbituko dituzte.

2.2. SARRERA

- Patio berdetik sartuko dira.
- Bertan tenperatura hartuko da eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dira.
- Ateak hamar minutu lehenago irekiko dira.
- A gelatakoak DBH aldeko eskaileretatik igo dira gelara begiralearekin.
- B gelatakoak LH aldeko eskaileretatik igo dira gelara begiralearekin.

2.3. IRTEERA

- Gelatik edo instalazioetatik atera aurretik eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dira.

- A gelatakoak DBHaldeko ateetatik eta patioko atetik irtengo dira.
- B gelatakoak ikastetxe ondoko dorretara ematen duten ateetatik irtengo dira.

2.4.GARBIKETA

- Egunero erabiltzen diren espazio eta gainazalak garbituko dira.
- Gelak ireki aurretik eta itxi ondoren aireztatuko dira. Hala ere, ahal den denbora gehienez leihoak irekita egongo dira.

2.5. KOMUNAK

- Patio berdeko komunak erabiliko dira.

3. LARUNBATAK

3.1. PREBENTZIO NEURRIAK

3.1.1 FAMILIAK

- Familiek konpromiso batzuk hartu beharko dituzte eta dokumentu bat sinatu beharko dute.
- Haur eta gazteak etxetik egunero tenperatura hartuta etorriko dira.
- Ahal dela familiak ez dira ikastetxera sartuko, zer edo zer behar badute Alai Batzako telefonoari deituko dute.

3.1.2 HAUR ETA GAZTEAK

- Haur bakoitzak bi maskarilla ekarriko ditu: bat jantzita eta ordeko bat badaezpada.
- Etxetik ezingo da jostailurik ekarri.

- Ezingo da jatekorik ekarri.
- Ura edatekotan bakoitzak bere ur botila edo kantinplora ekarriko du.
- Taldeak ikastetxeko gela berdineko haur eta gazteekin osatuta egongo dira.
- Gehienez ere 15 izango dira talde batean, begirale barne. Gainera, beti talde berdinarenean parte izango dira.

3.1.3. BEGIRALEAK

- Maskarak uneoro jantzita egongo dira.
- Eskuak maiz garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin.
- Edozein paper edo material banatu aurretik eskuak garbituko dituzte.

3.2. SARRERA

- Patio berdetik sartuko dira.
- Bertan tenperatura hartuko da eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dira.
- Ateak hamar minutu lehenago irekiko dira.

3.3. IRTEERA

- Gelatik edo instalazioetatik atera aurretik eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dira.
- A gelatakoak patioko atetik irtengo dira.
- B gelatakoak ikastetxe ondoko dorretara ematen duten patioko atetik irtengo dira.

3.4. GARBIKETA

- Egunero erabiltzen diren espazio eta gainazalak garbituko dira.
- Instalazioak ireki aurretik eta itxi ondoren aireztatuko dira. Hala ere, ahal den denbora gehienez leihak/ateak irekita egongo dira.

3.5. KOMUNAK

- Patio berdeko komunak erabiliko dira.

4. BESTELAKO NEURRIAK

- Eguraldian uzten duen heinean, ekintza guztiak patioan edo aire librean burutuko dira.
- Haurren batek edo begirale batek COVID-19an positibo ematen badu, aste horretan behintzat kurtso horrek ez du ekintzarik izango.
- Pandemiaren eboluzioaren arabera aldaketak egon daitezke eta egun batetik bestera ekintza gutziak bertan behera geratzea gertatu daiteke. Egoera horretara iritsiko bagina, ADS taldeak online egiten saiatuko ginateke.
- Egoeraren arabera protokoloa aldatu edo egokituko da. Publikoa izango da.

5. FAMILIENTZAKO JARRAIBIDEAK

1. Haurrek edo gazteek ezin dute Alai Batzara joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek Alai Batzara etorri aurretik tenperatura hartu behar dietela.
2. Pertsona bakarra joango da haurren bila, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
3. Laguntzaile horiek ikastetxean sartu ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua jarri beharko dute edo horretarako baimena izan beharko dute.
4. Laguntzaileak ezin izango dira ikastetxea kanpoan geratu, taldekatzeak eratzuz.
5. Haur edo gazte guztiek izan beharko dute beren maskara, ekintzen egunean erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituenak.
6. Familiak lankidetzan arituko dira Alai Batzako oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:
 - Ikastetxeko seinaleak errespetatzea.
 - Maskara erabiltzea.
 - Eskuak garbitzea.
 - Aretoak aireztatzea.
 - Bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea.
7. Haur edo gazte batek sintomak baditu, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
8. Alai Batzan egon eta gero haur edo gazteren batek sintomak baditu, Alai Batzara abisatuko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.